

[Bilbo 2007ko urtarrilaren 15an](#)

AENORen ISO 14001, ISO 9001 eta OHSAn ISO 18001 ziurtagiriak lortuak

Bahía de Bizkaia Electricidadek (BBE) AENORen ingurumenari buruzko UNE-EN ISO 14001:1996 ziurtagiriak lortu zituen, 2004ko urriaren 14ko datarekin. Ingurumena kudeatzeko sistemei lotutako ziurtagiri hori “Gas natural bidezko energia elektrikoaren sorkuntzan” aplikagarria da. Hala, BBEk urtebete inguru behar izan du Espainiako Estatuko ziklo konbinatuko lehen ekoizle independente bihurtzeko eta ingurumen kudeaketari buruzko UNE-EN ISO 14001:1996 ingurumen ziurtagiria lortzeko.

Ziurtagiri hau eskuratzea beti garrantzitsua bada enpresa batzuentzat, are garrantzitsuagoa da BBErentzat; izan ere, energia elektriko sortzeko egiten duen lana ingurumenari buruzko kudeaketaren barruan dago, ingurumena babesteko konpromiso tinkoa duen enpresa den aldetik. Ziurtapen hori lortzeko, alde aurretik ezarritako baldintza eta printzipio zenbait bete behar ditu enpresak, denboran zehar etengabeko hobekuntza erdiestea ahalbidetzen dituenak. Horrekin batera, kanpora begira ere argi erakutsi behar du lan hori guztia; hain zuzen ere, AENOR enpresa ziurtatzaileak egiten dituen ikuskaritzen edo auditorien bidez.

Ingurumenaren kudeaketari buruzko UNE-EN ISO 14001:1996 araua betetzeak hauxe esan nahi du: enpresak etengabe begiratzen dituela bere jardueraren alderdi guztiak, ingurumenarekiko errespetu osoz lan egiten duela elektrizitate-sorkuntzaren amaierako produktua lortzeko, aplikagarri diren arau guztiak betetzen dituela eta bere jardunean ingurumena babesteko politikarik eraginkorrena erabiltzen duela. Era horretara, langileen, hornitzaileen eta, oro har, gizartearen konfiantza bermatu eta areagotzen du.

Geroago, 2005eko abenduaren 5eko datarekin, BBEk Erregistro Ziurtagiria lortu zuen, “Gas natural bidezko energia elektrikoaren sorkuntza” alorrean jarduteko enpresa denez. Hori guztia bat dator kudeaketa sistemari buruzko ISO 9001/2000 arauarekin eta lehenik eskuratua zuen ISO 14001/1996 arautik ISO 14001/2004 araura egokitzen dena, arauaren berriztatzea aldatu baita.

Azkenik, 2006ko abenduaren 13an, “Gas natural bidezko energia elektrikoaren sorkuntza. Energia elektrikoa merkaturatzea merkaturako eta sistemako operadorearekin” alorrean aritzeko enpresa den aldetik, Lan Osasuna eta Segurtasuna Kudeatzeko Sistemari dagokion ziurtagiria erdietsi zuen, ISO 18001/1999 araua, hain zuzen ere.

Ziurtagiri horiek guztiak hiru urtez behin berritzen dira, berariaz berritzeko egiten diren auditorien bitartez eta urtero elkarte ziurtatzaileak jarraipen auditoriak egiten ditu.

